



EBAZPENA, 2023ko martxoaren 30koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz (2022ko urriaren 14ko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez argitaratu ziren lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak. Ebazpen hori, gerora, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez aldatu zen

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, lehiaketa horretan eskainitako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira. Horren ondorioz,

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitaratu ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin betiko lanpostu bete behar diren Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Interesatuak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**